

## ENTZUNALDIA

2021eko irailaren 15ean Udalak egindako Osoko Bilkuran, akordio hau hartu zuen:

### **--“3. UR ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN 35. ARTIKULUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.**

Ikusirik:

- Ur zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 35. artikulua aldatzeko espedientea (goi-hornidurako uraren sarea). Bertan jasotzen da aldaketa-proposamena.

- Idazkariak 2021eko irailaren 9an egindako txostena.

- Gai baten alderdi partzialen arauketa izanik, egin gabe utz daitekeela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 133.1 artikulua arautzen duen aurretiko kontsulta publikoa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluek eta 39/2015 Legeko 133.2 artikulua xedatzen dutenarekin bat eginik,

**aho batez ERABAKITZEN DA:**

1. Hasiera batez onestea ur zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 35. artikulua aldaketa.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholean iragarkia jarrita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek hura aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak eta oharrak egin ahal ditzaten.

3. Udal webgunean argitaratzea aldaketaren testua 30 egunez, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.

4. Ohartaraztea ez bada erreklamazio, kexa edo oharrak aurkezten, hasierako onespenu hau behin betikoa bilakatuko dela eta aldaketaren testua NAOn argitaratuko dela.”-----

39/2015 Legearen 133.2 artikuluari jarraikiz, ur zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 35. artikulua aldaketaren testua argitaratzen da udal webgunean ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko:

**UR ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. 35. ARTIKULUA ALDATZEA.**

## **Proiektua.**

### **EGUNGO IDAZKETA.**

#### **35. art. Presio handiko uraren sarea.**

Sare hauen bidez ura eramaten da iturburuetatik depositu erregulatzaileraino.

Ez da baimenik emanen hartunea egiteko presio handiko sareetan, non ez den interes orokorreko arrazoren bat tartean, eta halakoetan ere Udalaren Gobernu Batzordeak hala kontsideratzen badu.

### **ALDAKETA.**

#### **35. art. Goi-hornidurako uraren sarea.**

Sare hauen bidez ura eramaten da iturburuetatik depositu erregulatzaileraino.

Ez da baimenik emanen harguneak egiteko goi-hornidurako sareetan, honako kasu hauetan izan ezik:

- Interes orokorreko arrazoiengatik. Edonola ere, Udalak aintzat hartu beharko ditu arrazoi horiek.

- Behe-banaketa saretik urrun dauden lurzoru urbanizaezinetan, abeltzaintza erabilerarako baino ez diren harguneak baimendu ahal izango dira, betiere udal teknikarien aldez aurreko aldeko txostenarekin, biztanleriaren horniduran izan dezakeen eraginari dagokionez.

Entzunaldia 30 egun baliodunekoa izango da, eta epe horretan egokitzen jotzen diren ekarpenak egin ahal izango dira helbide elektronikoko honetan: [bera@bera.eus](mailto:bera@bera.eus).  
Gaia: ur zerbitzua arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Bera, 2021eko urriaren 5a.

ALKATEA,  
Aitor Elexpuru Egaña.